



DEIALDIA, IZANGAIEN ZERRENDA BAT OSATZEKO, ETXARRI ARANAZKO UDALEKO KONTU-HARTZAILEAREN LANPOSTUAN ALDI BATERAKO KONTRATAZIOAREN BIDEZ ARITZEKO

1. Deialdiaren xedea eta arau orokorrak.

1.1. Deialdia egiten da izangaien zerrenda bat osatzeko, B taldeko kontu-hartzailearen haur hezitzailearen lanpostuan aldi baterako kontratazioen bidez aritzeko, Etxarri Aranazko Udalean sortzen diren aldi baterako beharrei erantzutearren.

1.2. Izangaien zerrenda honek lehentasuna izango du deialdiaren xede den lanposturako lehendik dagoen aldi baterako kontrataziorako beste edozein izangaien zerrendaren aurretik.

1.3. Deialdi hau egingen da Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeko Erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren 42.2 artikuluan, aldi baterako langileen hautapenari buruzkoan, eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezartzen denari jarraituz.

1.4. Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoarekin bat, aldi baterako langileak hautatzeko prozeduretan, bilatuko da kontratazioa ahalik eta arintasun handienarekin egitea.

Nafarroako Tokiko Administrazioaren 6/1990 Foru Legearen 244. artikuluan aipatzen diren kontu-hartzailearen funtzioak direla eta (barneko kontrol eta fiskalizazioa, ekonomia, finantza, aurrekontu eta kontabilitatearen alorretako kudeaketa eta aholkularitza) presakotzat ematen dugu lanpostu hori betetzea, eta udal kudeaketa ez gelditzeko, interes orokorraren mesedetan eta herritarrei zerbitzua ematen jarraitzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuari deialdiaren 2. oinarria betetzen dutenen zerrenda eskatuko zaio (lan hobekuntzakoak barne).

Nolanahi ere, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskubidea izango dute, horretarako baldintzak betez gero, enplegu agentzia batean enplegu-eskatzaile gisa daudela edo lana hobetzeko eskabidea egina dutela kreditatzen duten izangaiek, betiere horretarako ezarritako epearen barruan aurkeztutako eskabidearekin batera egiaztatzen badute.

1.5. Hauek izango dira bete beharreko eginkizunak:

- Kontrola eta barne fiskalizazioa.
- Aholkularitza eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei eta kontabilitateari buruzkoa; txostenak; aurrekontu-proiektuak; ordenantzei buruzko azterlanak eta zerbitzu berrien egokitasunari buruzkoak eta horiek ekonomiaren eta finantzen arloetan duten eragina.
- Udal kontabilitateaz arduratzea eta hura aurrera eramatea. Lan horren barruan sartzen da aurrekontuko eta aurrekontuz kanpoko gastuen eta diru-sarreraren gaineko manamenduak ematea.
- Kontabilitateko zereginak, kontu orokorrak prestatzea eta aurrekontua likidatzea.
- Diruzaintzako planak prestatzea, esleitutako kobrantza eta ordainketa lanak aintzat hartuta, eta toki entitatearen funtsak, baloreak eta salgaiak maneatzea eta gordetzea.
- Lan kontratazioetatik eratorritako betebeharrak fiskalak eta sozialak betetzen direla bermatzea.



- Dirubilketa zerbitzuko buru gisa jardutea.
- Oro har, Nafarroako Foru Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 244. artikuluan aurreikusitakoak, eta aplikatzekoa den araudiak lanpostu horri unean-unean esleitzen dizkionak; eta, gainera, deialdia egin duen administrazioaren gobernu-organo eskudunek esleitzen dizkieten ekonomia- eta finantza-arlokoak.

1.6. Lanpostua B mailari dagokion hasierako soldata jasoko du, Nafarroako Administrazio Publikoetako langileendako ezarritakoetatik, gehi Etxarri Aranazko Udalaren plantilla organikoan ezarritako osagarriak (%35eko bateraezintasunaren osagarria eta % 16,73ko lanpostuen osagarria).

2. Izangaien betebeharrak.

2.1. Deialdi honetan onartuak izateko, izangaiek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Nazionalitate espainarra izatea.
- b) 16 urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.
- c) Hauetako ikasketa tituluren bat edukitzea, edo bakoitzari dagokion gradu titulua, edo balio berekotzat jotzen den beste titulu bat, 6/1990 Foru Legearen 246 bis 3 artikuluan ezarritakoarekin bat:

- Ekonomia edo Enpresa Zientzietako diplomatu titulua.
- Zuzenbideko lizentzia.
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lizentzia.
- Ekonomiako lizentzia.
- Zientzia Aktuarial eta Finantzarioetako lizentzia edo Ekonomia eta Enpresa Zientzietako lizentzia.

d) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailari dagokion ezagutza izan beharko da euskaraz.

e) Enplegu agenzia batean enplegu-eskatzaile gisa egotea edo lana hobetzeko eskabidea eginga edukitzea.

f) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisikoak eta psikikoak izatea.

g) Funtzio publikoan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez izana, ez eta administrazio publiko baten zerbitzutik berezia ere.

2.2. Baldintza horiek guztiak agiri bidez frogatu beharko dituzte hautatzen diren eta aldi baterako kontrataziorako deia jasotzen duten izangaiek, adierazten zaien unean, kontratua formalizatu aurretik.


2.3. Dei eginda, aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan salbu, aipatutako agiri horiek aurkezten ez dituztenak ezin izanen dira kontratatu, eta ordura arteko egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, euren eskabidearen faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzunbeharra galarazi gabe.

2.4. Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira aurreko baldintzak, eta hautapen prozedura aldi eta kontratazioak iraun bitartean beharko dira bete.

3. Inskribatzeko prozedura

3.1. Hautapen prozesuan parte hartu nahi dutenek eskabidea aurkeztu beharko dute Etxarri Aranazko Udaleko Erregistro Orokorrean, bertara agertuta edo bere egoitza elektronikoaren bitartez, edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Foru Legearen 1. artikuluan aipatzen diren tokietako edozeinetan.

3.2. Eskabideak aurkezteko epea hamar egun naturalekoa izango da, deialdi hau iragarki-oholean eta Etxarri Aranazko Udalaren webgunean (www.etxarriaranatz.eus) argitaratu eta hurrengo egunetik



aurrera.

3.3. Parte hartzeko eskabidean izangaiek adierazi behar dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

3.4. Deialdian parte hartzeko eskabidea I. eranskinen ereduaren arabera izanen da eta harekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- Deialdian parte hartzeko eskabidea ematen duen titulu akademikoaren fotokopia konpultsatua.
- Enplegu-bulego batean enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dagoela edo enplegua hobetzeko eskaera egin dela egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia.
- Euskararen ezagutza frogatzen duen tituluaren fotokopia konpultsatua ere aurkeztu beharko dute; horretarako, honako hauetako bat aurkeztu ahalko da: Hizkuntza Eskola Ofizial batek luzatutako Gaitasun agiria edo ofizialki baliokidetzat jotzen den titulazioa.

Titulazio hori ez daukatenean eskatutako hizkuntza mailaren proba bat gaindituta frogatu ahalko dute ezagutza hori, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraituz. Proba hori Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak egingen du eta interesdunek deialdian parte hartzeko eskabidea aurkezterakoan eskatu beharko dute (I. eranskina).

3.5. Eskaerak aurkezteko epea luzaezina da.

3.6. Agiriak aurkezten badira Administrazio Prozeduraren Legeak baimendutako gainerako bideetako erabiliz, eskatzaileak eskabidea igorri duela jakinaraziko du fax bidez (948 460586 zenbakia), telegramaz edo posta elektronikoz (udala@etxarriaranatz.eus), eskabideak aurkezteko epearen azken eguna eta ordua baino lehen.

Bi betekizun horiek gabe dokumentazioa ez da onartuko, kontratazio organoak jasotzen badu oinarri hauetan adierazitako epea amaitzeko eguna eta ordua pasatu eta gero. Dena den, aipatutako epea iragan eta hiru (3) eguneko epean dokumentazioa jasotzen ez bada, ez da inola ere onartuko.

4. Izangaien onarpena eta erreklamazioak.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Etxarriko Udaleko alkate udalburuak ebazpena emanen du, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko. Zerrenda horretan izangaien izen-abizenak jasoko dira eta, baztertuen kasuan, horretarako arrazoia ere bai.

4.2. Deialdiaren garapenari buruzko iragarki eta argitalpen guztiak Udalaren iragarki oholean eta web-orrian (www.etxarriaranatz.eus) argitaratuko dira.

4.3. Izangai baztertuek, behin-behineko zerrenda argitaratu ondoko hiru (3) egun baliodunen barruan, erreklamazioak egiten ahalko dituzte eta okerrik egin badute, haiek zuzendu.

4.4. Erreklamazioetarako epea burututakoan eta haiei erantzun ondotik, alkateak ebazpena emanen du onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko. Izangai bazterturik ez badago, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda. Zerrenda horretan izangaien izen-abizenak jasoko dira eta, baztertuen kasuan, horretarako arrazoia ere bai.

5. Deialdiaren epaimahaia.

5.1. Deialdiaren epaimahaia honako hauek osatuko dute:



- Lehendakaritza: Silvia Marañon Chasco, Etxarri Aranazko Alkatea. Ordezkoa: Lur Iosu Larraza López, Etxarri Aranazko Udaleko lehen alkateordea.
- Bokala: Maialen Lopez Cambra, Altsasuko Udal Kontuhartzailea. Ordezkoa: Jose Antonio Otazu Ferrer, Irurzungo Udal Kontuhartzailea.
- Bokala: Nerea Malkorra Araolaza, Sakanako Mankomunitateko Kontuhartzailea. Ordezkoa: Miren Ortiz Olabe, Sakanako Mankomunitateko Idazkaria.
- Bokala: Izaskun Mariñelarena Galarza, Olaztiko Udal Ekonomista. Ordezkoa: Sandra Martinez Gutierrez, Olaztiko Udal Idazkari-Kontuhartzailea.
- Bokal-idazkaria: Lola Eslava Serrano, Etxarri Aranazko Udal Idazkaria. Ordezkoa: Maria Barkos Berruezo, Lakuntzako Udal Idazkari-Kontuhartzailea..

5.2. Mikel Armendariz Carrascon, Toki Administrazioako Departamentuak izendatutako teknikaria, eta Fermin Cabases Hita, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak izendatutako teknikaria, epaimahaiaren aholkulari gisa jardungo dute.

5.3. Epaimahaiaren eratu eta haren jarduketak balioa izateko, kide guztien erabateko gehiengoa bildurik izan beharko da.

5.4. Deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sortzen diren afera guztiak gehiengoz erabakiko ditu epaimahaiak.

5.5. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan nahiz guztietan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoan aritzera mugatuko dira eta haietan soilik emanen diote laguntza epaimahaiari.

6. Hautapen-prozesua.

6.1. Hautaketa-prozesuak bi ariketa izango ditu, oinarri hauetan adierazitako moduan egingo dena. Prozesua, ziuurtenik, 2020ko ekainean hasiko da.

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean berean finkatuko dira proba teorikoa hasteko tokia, eguna eta ordua.

6.2. Proba teorikoa idatzizko ariketa bakarra izango da, eta test moduko galdera labur batzuei erantzun beharko zaie. Galdera horiek jarraian aipatzen diren gaietarako buruzkoak izango dira. Gai horiek indarra duen legeriari jarraikiz baloratuko dira,

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 270/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea garatzen duena aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan.
- 234/2015 Foru Dekretua, irailaren 23koa, Nafarroako Toki Erakundearen aurrekontu-egitura onartzen duena.
- 272/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Jarraibide Orokorra onesten duena.
- 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzkoa.

Epaimahaiak erabakiko du proba hori egiteko gehieneko denbora, proba hasi aurretik, eta 50 puntu izanen ditu gehienez ere. Galdera guztien hasierako balorazioa berdina izanen da. Baztertutako dirak gutxienez ere 25 puntu erdietsi ez dituzten izango dira.

6.3. Proba praktikoa: Ekonomia-, finantza- eta aurrekontu-kudeaketarekin, kontabilitatearekin eta 6.2. puntuaren zehaztutako gaiekin lotutako kasu bat edo batzuk egin beharko dira, eta proba honetarako



kalkulagailu zientifikoa erabili ahal izango da.

Proba teorikoan gutxienez 25 puntu lortzen dituzten pertsonak bakarrik igaroko dira proba praktikora.

Proba horrek zenbat iraungo duen epaimahaiak erabakiko du, ariketen edukia ikusita. Gehienez 50 puntu izango ditu.

6.4. Izangaien zerrenda (kontratazio-poltsa) osatuko dute proba teorikoa eta praktikoa gainditu dutenek eta proba teorikoa soilik gainditu dutenek. Nolanahi ere, bi probak gainditu dituzten izangaiek erabateko lehentasuna izango dute deialdirako.

6.5. Bi probak egin ondoren, ariketa praktikoaren plikak irekitzeko ekitaldi publikoaren lekua, eguna eta ordua ezarriko dira. Ekitaldi horren ondoren, hautagaiek lortutako puntuazioa argitaratuko da Udalaren iragarki-taulan eta webgunean.

6.6. Dei bakarraren bidez egingen da proba, eta izangaiaik NANA aldean dutela agertuko dira, nork bere nortasuna behar bezala frogatzeko. Oposiziotik baztertuko dira iragarritako egun, ordu eta tokian agertzen ez diren izangaiaik, arrazoia edozein dela ere.

7. Hautaprobak gainditzten dituztenen zerrenda eta lanean hasteko deia.

7.1. Probaren kalifikazioa amaitutakoan, epaimahaiak probak gainditu dituzten izangaien zerrenda argitaratuko du, bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta, eta hiru (3) egun balioduneko epea irekiko du emaitzei buruzko alegazioak egiteko.

7.2. Alegazioak aurkezteko epea igarotakoan, eta alegazio horiek ebatzitakoan, epaimahai kalifikatzaileak onartutako pertsonen zerrenda Alkatetzari helaraziko dio, hautaketa-prozesuaren espediente osoarekin batera. Zerrenda horretan izangaien izen-abizenak jasoko dira.

7.3. Bi izangaik edo gehiagok puntuazio bera baldin badute, berdinketa hausteko, lehentasuna izango du ariketa teorikoan puntuaziorik altuena lortu duen izangaiaik. Berdinketa hausten ez bada, zozketa bidez ebatziko da.

7.4. Etxarri Aranazko Udaleko alkate-udalburuak aldi baterako kontrataziorako hautagaien zerrenda osatuko du.

7.5. Izangaiei II. Eranskinean ezarritakoaren arabera deituko zaie ("Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak kudeatzeko arauak"). II. Eranskina deialdi honi atxikita dago.

8. Datu pertsonalak babesteari buruzko politika

Bat etorriz 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (DBEO) 13. artikuluekin, izangaiei honako honen berri ematen zaie:

- Etxarri Aranazko Udala da parte-hartzaileek emandako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna.
- Langileak hautatzea eta deialdi honen xede den lanpostua betetzea da deialdi honen xede.
- Oinarri juridikoa honako hau da: DBEOren 6.1.b) artikulua, interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko edo, hark eskatuta, kontratu aurreko neurriak aplikatzeko behar den tratamendua, eta DBEOren 6.1.c) artikulua, tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharrak bat betetzeko behar den tratamendua.



- Datuak biltzen diren helburua betetzeko eta deialdiaren eta datuen tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira. Artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da (Nafarroako toki entitateetako dokumentuak ebaluatzeke eta ezabatzeke jarraibideak).
- Datuak legez aurreikusitako kasuetan jakinaraziko dira (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa), baita haiek Gardentasun Atarian argitaratzea ere, 5/2018 Foru Legearen 19.2.f) artikuluan ezarritakoarekin bat.
- Titularrek datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, mugatu, aurka egiteko eta eramangarriak izateko eskubideak baliatu ditzakete, egoitza elektronikoaren bidez (<https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/dossier.0>) edo datuak babesteko ordezkariaren helbidean (dpd@etxarriaranatz.eus).
- Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute Datuak babesteko Espainiako Agentzian (agpd.es), betiere tratamenduak indarreko araudia betetzen ez duela uste badute, edo datuak babesteko ordezkariaren aurrean, lehen adierazitako helbidean, eta hark gehienez ere bi hilabeteko epean helaraziko dio erabakia.

9. Errekurtsoak.

Deialdiaren, haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, hautara, honako errekurtso hauetako bat aurkez daiteke:

- Berraztertzeke errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabetez, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- Epaimahai kalifikatzailearen egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Etxarri Aranazko Udaleko Alkatetzan, hilabeteko epean, deialdia jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Etxarri Aranatzen, sinaduraren datan.



I. ERANSKINA. Eskabide eredua

Izena:, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:,
jaioteguna:, jaioterria: (.....) eta helbidea: (.....), kalea:,
zenbakia:, pisua:, posta kodea:, telefono finkoa:, telefono mugikorra:
....., e-maila:, zure aurrera agertu eta adierazten dut:

Etxarri Aranazko Udalean kontu-hartzaile lanpostuan aritzeko izangaien zerrenda osatzeko deialdian onartua izateko eskatzen duela (lanpostua aldi baterako izango da, eta B taldekoa).

Deialdiaren oinarri arautzaileak ezagutzen dituela eta berariaz onartzen dituela, eta honako dokumentazio hau aurkeztu duela:

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
 - Deialdian parte hartzeko eskubidea ematen duen titulu akademikoaren fotokopia konpultsatua.
 - Enplegu-bulego batean alta emanda dagoela egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia.
- Euskararen ezagutza egiaztatzen duen titulazioaren fotokopia (markatu hala dagokionean)
- Euskararen ezagutza egiaztatzeko proba egin nahi duela (markatu dagokionean)

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela adierazi du.

Hori guztia dela eta, honako hau **ESKATZEN DU**:

Eskabide hau garaiz eta taxuz aurkeztu dudanez, honen bidez eskatzen dut onartua izatea Etxarri Aranazko Udalak kontu-hartzaile lanpostua aldi baterako betetzeko izangaien zerrenda osatzeko deialdian.

(eskatzailearen data eta sinadura)

ETXARRI ARANAZKO ALKATEA

***DATUEN BABESA Tratamenduaren arduraduna:** Etxarri Aranazko Udala. **Xedea:** langileak hautatzea eta deialdi honen xede den lanpostua betetzea. **Eskubideak:** Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea, bai eta beste eskubide batzuk ere, deialdiaren 8. oinarrian jasotako informazio gehigarrian adierazten den bezala.



ANEXO II / II ERANSKINA

ETXARRI ARANAZKO UDALEAN KONTU-HARTZAILE LANPOSTUA BETETZEKO LAN-POLTSA KUDEATZEKO ARAUAK.

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

Ebazpen honen xedea da Etxarri Aranazko Udaleko kontu-hartzaile lanpostua (B taldea) aldi baterako kontratu bidez betetzeko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak ezartzea.

2. artikulua. Zerrenda sortzea

1. Aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrendetan sartuko dira, lehenik eta behin, hautaketa-prozesuko proba guztiak gainditu dituzten izangaiak, eta, bigarrenik, proba teorikoa bakarrik gainditu dutenak.
2. Izangaien zerrendan lehenetsia finkatzeko, probetan lortutako puntuazioari erreparatuko zaio, handienetik txikienera.
3. Artikulu honen bidez osatzen diren zerrendek bost urteko indarraldia izanen dute gehienez, onesten direnetik hasita eta hurrengo lan-poltsa sortu arte.

Zerrenden indarraldia bitartean, halako lanpostuetarako beste zerrendaren bat osatzen bada Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako hautaprobaren deialdi publiko baten bidez, berrikiago onetsitako zerrendetako izangaiak lehenetsiko dira zerrenda zaharragoen aurretik.

4. Kanpainetarako kontratazioen kasuan, edo dirulaguntza batekin lotuta dauden kasuan, eta betiere behar bezala justifikatzen duten eta ohikoak ez diren presazko arrazoiak badaude, Nafarroako Enplegu Zerbitzuari eskatzen ahalko zaio izangaien zerrenda bat bidal dezan.
5. Eragimena eta eraginkortasuna helburu, aldi baterako kontratazioetarako izangai zerrendak prestatzeko deialdietan lanaldi partzialean kontratatuak izateko aukera eskaintzen ahalko zaie izangaiei.

3. artikulua. Deiak egiteko arau orokorrak.

1. Errazago aurkitu ahal izateko, izangaiek harremanetarako telefono bat bederen jakinarazi beharko dute. Horrez gainera, harremanetarako beste telefono batzuk edo helbide elektronikoa eman ditzakete. Informazio horrek etengabe eguneratua egon beharko du. Datu hauek

NORMAS DE GESTIÓN DE LA BOLSA DE TRABAJO DE INTERVENCIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE ETXARRI ARANATZ

Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación

La presente resolución tiene por objeto establecer las normas de gestión de la lista de aspirantes al desempeño, mediante contratación temporal, de puestos de trabajo de Intervención (Grupo B) del Ayuntamiento de Etxarri Aranatz.

Artículo 2. Creación de lista

1. Serán incluidos en listas de aspirantes a la contratación temporal en orden de puntuación en primer lugar, todos aquellos aspirantes que hayan aprobado todas las pruebas del proceso selectivo y, en segundo lugar, los que únicamente hayan superado la prueba teórica.
2. La prioridad en la lista de aspirantes se establecerá en función de la mayor puntuación obtenida en la totalidad de las pruebas.
3. Las listas constituidas al amparo de este artículo estarán vigentes durante un periodo máximo de cinco años desde su aprobación.

Si durante el periodo de vigencia de las listas se constituyen otras nuevas para el mismo puesto de trabajo, mediante convocatoria pública de pruebas selectivas, tendrán prioridad los aspirantes de las listas más recientes sobre los de las más antiguas.

4. En los casos de contrataciones de campaña o relacionadas con subvenciones, y siempre que concurren razones de extraordinaria urgencia debidamente justificada, se podrá solicitar al Servicio Navarro de Empleo la remisión de una relación de aspirantes.
5. En los supuestos en que el Ayuntamiento así lo necesite por concurrir razones de eficacia y eficiencia, se podrán incluir la posibilidad de optar a contratos a tiempo parcial.

Artículo 3 Normas generales de llamamiento.

1. Con el fin de facilitar su localización, los aspirantes deberán comunicar, al menos, un teléfono de contacto, sin perjuicio de que puedan comunicar, además, otros teléfonos de contacto o dirección de correo electrónico, información que deberán mantener permanentemente actualizada. El Ayuntamiento obtendrá estos datos de la instancia de solicitud de participación en el proceso selectivo, sin perjuicio de



prozesuan parte hartzeko instantzietatik hartuko dira. Interesdunak datuak eguneratu edota aldatu ditzake.

2. Izangaiei deitzeko orduan, aurretik ezarritako lehentasun-irizpideak hartuko dira kontuan.
3. Kontratua telefonoz eskaintzen zaion izangaiari hiru dei, bederen, eginen zaizkio emandako komunikazio-bideen bitartez, bi eguneko epean.

Dei bakoitzaren idatzizko oharra eginen da, gorabeherak, eguna eta ordua aipaturik.

5. Izangai batekin harremanetan jarri eta kontratazeko eskaintza eginez gero, erantzuten ez badu, uko egiten diola ondorioztatuko da eta 7. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio.

6. Izangai batekin harremanetan jartzerik ez bada, zerrendan hurrengo denari deituko zaio, harik eta eskaintzen diren lanpostu guztiak bete arte.

Harremanetan jartzerik izan ez duten izangaiek zerrendan zuten postuari eutsiko diote.

7. Hasiera batean hilabeteko edo laburragoak diren kontratazioak, behin baimendu ondoren, haiekin harremanetan jarrita lanean berehala hastea onartzen duen lehenengo izangaiari eskainiko zaizkio, artikuluko honen 3. idatz-zatian ezarritakoa bete behar izan gabe.

8. Kontratu bat onartzen duten izangaiei ez zaie beste lanpostu batean aritzeko kontraturik eskainiko, lanaldi partzialen kasuan izan ezik. Lanaldi partzialeko aldi baterako kontratazioetan, ahaleginak eginen dira lanaldia Udalean sortzen diren beste behar batzuekin osatzeko, betiere kontratu berarekin egitea posible bada eta interesdunak kontratuari uko egin diola ulertuko da.

9. Izangaia kasu bakoitzean esaten zaion epean kontratua onartu beharko du, bestela ukatzen duela ulertuko da. Epe hau ez da inoiz 24 ordu baino luzeagoa izanen. Erantzuten ez badu, interesdunak kontratuari uko egin diola ulertuko da.

4. artikulua.- Deietarako lehentasun berezia.

1. Deietarako orokorrean ezarritakoa deusetan ukitu gabe, izangai bat aldi baterako kontratu baten bidez lanpostu batean aritu bada eta, kontratu hori bukatu eta hurrengo 6 hilabete epearen barruan, zerbitzu berean lanpostu berdina aldi baterako betetzea baimentzen bada, Administrazioak izangai berari eskainiko dio kontratua, betiere dei egiten zaion

que el interesado pueda solicitar expresamente la modificación y/o actualización de estos datos.

2. El llamamiento de los aspirantes se efectuará de acuerdo con los criterios de prelación anteriormente establecidos.

3. Con carácter general, a cada aspirante al que se oferte un contrato por teléfono, se le realizarán al menos tres intentos de localización a través de los medios de contacto por él facilitados, durante un periodo de dos días.

Se dejará constancia de cada llamamiento, señalando las circunstancias, fecha y hora en la que se ha efectuado.

5. Si puestos en contacto con un aspirante y realizada una oferta de contratación, no contesta a la misma, se entenderá que la rechaza y se le aplicará lo dispuesto en el artículo 7 .

6. Cuando un aspirante no pueda ser localizado se contactará con el siguiente o siguientes de la lista, hasta que el puesto o puestos de trabajo ofertados sean cubiertos.

Los interesados con los que no se haya podido contactar mantendrán su lugar en la lista correspondiente.

7. Las contrataciones cuya duración inicial prevista sea igual o inferior a un mes se podrán ofertar, una vez autorizadas, al primer aspirante disponible con el que, sin necesidad de cumplir lo previsto en el apartado 3 de este artículo, se consiga contactar y que acepte su incorporación inmediata.

8. A los aspirantes que acepten un contrato no se les ofertará la contratación para desempeñar ningún otro puesto de trabajo, salvo en las contrataciones temporales a tiempo parcial en las que se procurará completar la jornada con la existencia de otras necesidades que sea preciso cubrir en el mismo ayuntamiento, siempre que ello sea posible dentro del mismo contrato y cuente con la conformidad del interesado.

9. El aspirante deberá comunicar la aceptación del contrato en el plazo establecido al efecto en cada caso que nunca excederá de 24 horas desde la recepción de la llamada, a decisión del Ayuntamiento en cada caso. En caso de no contestar se entiende que el interesado renuncia al contrato.

Artículo 4.-Prioridad excepcional para el llamamiento

2. Sin perjuicio de lo dispuesto con carácter general para los llamamientos, cuando un aspirante haya desempeñado un puesto de trabajo en virtud de



momentuan baldintza hauek betetzen badira:

- Deia egiten den momentuan indarra duen zerrenda batean egotea izangaia.

- Aurreko kontratuaren bukaeraren arrazoia ez izatea hari uko egin izana.

5. artikulua. Presazko deiak.

Behar bezala frogatutako presazko kasuetan, kontratazioa, behin baimendu ondoren, harekin harremanetan jarrita lanean berehala hastea onartzen duen lehenengo izangaiari eskainiko zaio, 3.3 artikuluan ezarritakoa bete behar izan gabe.

6. artikulua. Deiak amatasun, aitatasun eta adopzioaren lizentzia kasuetan.

1. Amatasunaren, aitatasunaren edo adopzioaren lizentzia hartzeko ezarrita dagoen epearen barruan aldi baterako kontratu bat sinatzeko deia jaso eta kontratua onartzen duten izangaiei lanpostu hori erreserbatuko zaie lanean benetan hasten diren arte, orduan sinatuko baitute kontratua.
2. Kontratua onartzen ahalko dute, bakar-bakarrik, baldin eta aurreikusitako iraupenak bide ematen badie lanpostuan benetan hasteko.
3. Lanpostuan sartuko dira amatasunaren edo adopzioaren lizentziarako ezarritako epea bukatzen den egunean, edo lehenago, interesdunak eskatzen badu, baina betiere erditu ondoren amarentzat ezarritako nahitaezko atsedendia bukatuta.
4. Horrelakoetan, amatasuna edo adopzioa gertatu izan ez balitz lanpostuan hasiko zatekeen egunetik lanpostuan benetan hasten den egunera arte doan epea Administrazioan emandako zerbitzu gisa onartuko da. Aldi hori onartuko zaio kontratua sinatzen baldin badu eta ondorioak izanen ditu lanpostuan hasten den unetik aurrera.

7. artikulua. Kontratatze eskaintzari uko egitea.

1. Izangairen batek eskaini zaion lanpostuari uko egiten baldin badio, zerrendatik kanpo geratuko da, salbu eta ondoko egoera batean dagoela frogatzen badu:
 - a) Indarrean dagoen izendapen, kontratu administratibo edo lan kontratu batengatik horretara behartua egotea.

un contrato temporal y dentro del plazo de los 6 meses siguientes a la finalización del citado contrato se autorice la cobertura temporal de un puesto de trabajo igual en el mismo ayuntamiento, la Administración ofertará el contrato a dicho aspirante, siempre que, en el momento del nuevo llamamiento, concurren los siguientes requisitos:

- Que el aspirante esté incluido en una lista que se encuentre vigente en el momento del llamamiento.

- Que la finalización de su contrato no se haya producido por renuncia al mismo.

Artículo 5. Llamamientos urgentes.

En supuestos de urgencia debidamente acreditada, la contratación, una vez autorizada, se ofertará, sin necesidad de cumplir con lo establecido en el artículo 3.3 , al primer aspirante disponible con el que se consiga contactar y que acepte su incorporación inmediata.

Artículo 6. Llamamiento en los casos de licencia por maternidad o adopción.

1. A los aspirantes a la contratación temporal que, encontrándose dentro del periodo establecido para la licencia por maternidad o adopción (no en licencia de paternidad), sean llamados para la suscripción de un contrato y lo acepten, se les reservará el mismo hasta su incorporación efectiva al puesto de trabajo, momento en el que se firmará el contrato.

2. La aceptación del contrato sólo podrá producirse si la duración prevista del mismo permite su incorporación efectiva al puesto de trabajo.

3. La incorporación se producirá en la fecha en que finalice el periodo establecido para la licencia por maternidad o adopción, o con anterioridad si la interesada así lo solicita, respetando en todo caso el periodo de descanso obligatorio posterior al parto fijado para la madre.

4. En estos casos, se reconocerá como servicios prestados en la Administración respectiva el periodo comprendido desde la fecha de incorporación inicialmente prevista de no haber mediado la situación de maternidad o adopción, hasta el momento de la incorporación efectiva al puesto de trabajo. Este reconocimiento estará supeditado a la firma del contrato y producirá efectos a partir del momento de incorporarse al puesto de trabajo.

Artículo 7. Renuncia a ofertas de contratación.

1. Si algún aspirante renuncia al puesto de trabajo ofertado será excluido de la lista, salvo que acredite



- b) Lanaldi partzialeko kontratu bati uko egitea, parte hartzeko eskabidean aukera hori hautatu ez bazuen. Lanaldi partzialeko kontratu bat onartuz gero, 3.8. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio. d) Aldi baterako ezintasun egoeran izatea edo umea izan edo adoptatzeagatik lizentzia izatea. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaiak ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta behar bezala frogatu arte uko egitea justifikatu zuen egoera bukatu dela.
- e) 3 urte baino gutxiagoko semea edo alaba, norberak izandakoa zein adoptatua, zaindu beharrean egotea. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaiak ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta kontratuari uko egin zioten egunetik gutxienez hilabete bat igaro arte, salbu eta hura eragin zuen arrazoia lehenago desagertzen bada.
- f) Zaindu behar badu bigarren gradura arteko odol edo ezkontza bidezko ahaide bat, adina, istripua edo eritasuna dela-kausa bere burua ezin gobernatu duena. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaiak ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta kontratuari uko egin zioten egunetik gutxienez hilabete bat igaro arte, salbu eta hura eragin zuen arrazoia lehenago desagertzen bada.
- g) Izangaia ezkondu berria bada edo, Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Legearen arabera, balio bereko egoeran sartu berria, hori gertatu ondoko edo gertatu aurreko hamabost egun naturaletan uko eginez gero lanpostuari.
- h) Desgaitasunen bat behar bezala onartua izatea eta desgaitasunaren ezaugarriak bateraezinak izatea eskaintzen zaion lanpostuaren ezaugarri bereziekin.
2. Aurreko idatz-zatian jasotako kasuetan, h) letrakoetan izan ezik, izangaiek zerbitzu emateko moduan daudela jakinarazi beharko dute. Jakinarazpen hori egin bitarte, izangaiak ez dira deitzeko moduan izanen, eta ez zaie inolako lanposturik eskainiko sartuta dauden zerrendetatik. a), e) eta f) letretako kasuetan, arrazoi eragile bera bi aldiz baino ezin izanen da erabili ukoa justifikatzeko arrazoi gisa.
3. Artikulu honetan 1. idatz-zatian adierazitako egoeretako batean, h) letrakoan izan ezik, dauden izangaiek hilabeteko epea izanen dute,

encontrarse en alguno de los siguientes supuestos:

a) Estar obligado en virtud de un nombramiento o contrato administrativo o laboral en vigor.

b) Renunciar a un contrato a tiempo parcial en el supuesto de no haber elegido esa opción al presentar la instancia de participación. Aceptado un contrato a tiempo parcial se estará a lo establecido en el artículo 3.8.

d) Encontrarse en situación de incapacidad temporal o licencia por maternidad o adopción. Quienes renuncien a un contrato por este motivo no podrán volver a estar en situación de disponibles hasta que acrediten debidamente que ha finalizado la situación que justificó su renuncia.

e) Tener a su cuidado un descendiente menor de 3 años, tanto cuando lo sea por naturaleza como por adopción. Quienes renuncien a un contrato por este motivo no podrán volver a estar en situación de disponibles hasta que haya transcurrido al menos un mes desde la renuncia, salvo que con anterioridad desaparezca la causa que motivó la misma.

f) Tener a su cuidado a un familiar hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad que, por razones de edad, accidente o enfermedad, no pueda valerse por sí mismo. Quienes renuncien a un contrato por este motivo no podrán volver a estar en situación de disponibles hasta que haya transcurrido al menos un mes desde la renuncia, salvo que con anterioridad desaparezca la causa que motivó la misma.

g) Matrimonio propio o situación asimilada según la Ley 6/2000, de 3 de julio, para la igualdad jurídica de las parejas estables, si la fecha de inicio del contrato ofertado está incluida dentro de los quince días naturales anteriores o siguientes a su constitución.

h) Tener la condición de discapacitado debidamente reconocida y que las características de su discapacidad la hagan incompatible con las condiciones específicas del puesto de trabajo para el que se oferta el contrato.

2. En los casos recogidos en el apartado anterior, a excepción de los de la letra h), los aspirantes deberán comunicar su disponibilidad para prestar servicios. Mientras esta comunicación no se produzca, los aspirantes estarán en situación de no disponibles y no se les ofertará puesto de trabajo alguno de las listas en las que estén incluidos. En los supuestos recogidos en las letras a), e) y f), el mismo hecho causante solo podrá ser utilizado como causa de justificación en dos ocasiones.

3. Los aspirantes que se encuentren en alguna de las situaciones enumeradas en el apartado 1, con excepción de la recogida en el punto h), deberán



uko egiten dioten lanpostua eskaintzen zaien egunetik, agiri bidez eta behar bezala justifikatzeko. Hala eginez gero, lanpostuari uko egin ziotenean zerrendan zuten toki berean jarraituko dute.

8. artikulua. Zerrendetatik ateratzea.

Izangaiak honako kasu hauetan geratuko dira deia ekarri duen zerrendatik kanpo:

- a) Eskaintako lanpostuari arrazoirik gabe uko egitea.
- b) Dei egin eta lanpostua onartu ondotik, kontratua ez sinatzea, izangaiari egotzi beharreko arrazoiengatik.
- c) Probaldia ez gainditzea.
- d) Sinatutako kontratuari uko egitea, non eta ez den Etxarri Aranazko Udalean eta haren erakunde autonomoetan funtzionario edo lan-kontratuko langile finko gisa sartu delako maila bereko edo beheragoko lanpostu batean, edo araudi honen 3.8 artikuluan ezarritakoaren ondorioz.
- e) Urtebeteko epean izangaiarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izatea, hark emandako telefonoaren edo helbide elektronikoen bidez kontratatzekeo deiak behin eta berriz eginda ere.
- f) Etxarri Aranazko Udalean eta haren erakunde autonomoetan funtzionario gisa edo lan kontratatu gisa sartzeko lanpostu berean edo maila altuagoko beste batean jarduteko.
- g) Lanpostua bertan behera uztea.
- h) Kontratua amaitzea gerora sortutako arrazoiak direla kausa, hain zuzen, kontratatzen den langileak lanpostuan aritzeko duen gaitasun edo egokitzapen faltagatik, horrek lanpostuak dituen eginkizunak eraginkortasunez betetzea galarazten duen errendimendu eskasa badakar.

acreditarlo documental y fehacientemente en el plazo de un mes contado desde la fecha en que se les haya ofertado el puesto de trabajo al que renuncian, en cuyo caso permanecerán en el mismo lugar que ocupaban en la lista de aspirantes en el momento de la renuncia.

Artículo 8. Exclusión de las listas.

Serán excluidos de la lista que haya dado lugar al llamamiento los aspirantes que incurran en alguno de los siguientes supuestos:

- a) Renuncia injustificada al puesto de trabajo ofertado.
- b) No suscripción del correspondiente contrato por causa imputable al aspirante, una vez aceptado el puesto de trabajo en virtud del llamamiento.
- c) No superación del período de prueba.
- d) Renuncia al contrato suscrito, salvo que la misma sea por causa del ingreso en la el Ayuntamiento de Etxarri Aranatz y sus organismos autónomos como funcionario o contratado laboral fijo en un puesto de trabajo diferente del mismo o de inferior nivel, o como consecuencia de lo establecido en el artículo 3.8 de esta normativa
- e) Imposibilidad reiterada, durante un periodo de un año, de contactar con el aspirante con motivo de llamamientos para la contratación, en los teléfonos o direcciones de correo electrónico facilitados por el mismo.
- f) Ingreso como funcionario o como contratado laboral fijo en el Ayuntamiento de Etxarri Aranatz y sus organismos autónomos en el mismo puesto de trabajo o en otro de superior nivel.
- g) Abandono del puesto de trabajo.
- h) Extinción del contrato por causas sobrevenidas, derivadas de la falta de capacidad o de adaptación del contratado para el desempeño del puesto de trabajo, manifestada por un rendimiento insuficiente que impida realizar con eficacia las funciones atribuidas al puesto.

